

**ERABAKIA, 2015eko EKAINAREN 1ekoa, UPV/EHUko GERENTEARENA, ARGITARA EMATEKO "PREBENTZIO NEURRI OSAGARRIAK IKASTEGIAK ORDUTEGIZ KANPO ZABALTZEN DIRENEAN LARRIALDIEN BAT DAGOENERAKO" IZENeko PROZEDURA, PREBENTZIOAREN KUDEAKETA SISTEMAKO PROZEDUREN ESKULIBURUKO 5. PROZEDURAREN ("LARRIALDIEN KUDEAKETA" IZENekoAREN) V. ERANSKINEAN JASOTAKOA.**

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko politika, UPV/EHUko langileen zein unibertsitateko instalazioetan zerbitzuak ematen ari diren kanpoko langileen laneko segurtasun eta osasunaren babes maila handitzeko lan baldintzen hobekuntza helburu duten neurrien multzoa den heinean, eraginkortasunaren, koordinazioaren eta parte hartzearen printzipioetan oinarrituta dago eta UPV/EHUK administrazio publiko moduan prebentzioaren arloan burutzen duen jarduera antolatzen du, baita jarduera horretan unibertsitateko langileen ordezkariak duten parte hartzea ere.

Prebentzio jardueren prozedurak oinarritzekoak dira prebentzio sistema finkatzeko. Horrexegatik eztabaidatu zen, hain zuzen ere, Prebentzioaren Kudeaketa Sistemako Prozeduren Eskuliburua Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordeko hainbat bileratan (horietako azkena 2011ko ekainaren 30ean), Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmeneko 46. artikuluan, UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Lan Kontratudun Langileen III. Hitzarmen Kolektiboko 83. artikuluan eta UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboko 89. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eskuliburu edo gida hori laneko arriskuen prebentzioa administrazioaren kudeaketa orokorraren sisteman txertatzeko balio duen tresna da. Alde horretatik, prebentzio prozeduren multzo zabala biltzen du, unibertsitatearen jardueretan eta maila hierarkikoetan aplikatu beharreko irizpide eta jarraibideekin batera, eta bere helburua da pertsona guztiei laneko segurtasun eta osasunaren arloan babes eraginkorra bermatzea.

Laneko arriskuen prebentzioa benetakoa izan dadin, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, prebentzio jardueraren segimendua eta hobekuntza modu iraunkorrean gauzatu behar da.

Prebentzioaren Kudeaketa Sistemako Prozeduren Eskuliburua egin zenetik iragandako denboran argi geratu da tresna hori apurka-apurka eta etengabe eguneratzeko premia. Zehazki, "Larrialdien Kudeaketa" izeneko prozeduraren V. eranskinean aldaketa eta zehaztapen batzuk sartu beharra ikusi da, bertan jasotako definizioak, jarraibideak, eginkizunak eta erantzukizunak aberaste aldera.

Jose Luis Martin González, Secretario General de UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original. Por delegación de firma, en virtud de la Resolución de 16 de febrero de 2013, la jefe de Negociado de Seguridad General (dot. 2).

Jose Luis Martin González jaunik, UPV/EHUko idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin. Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2. zuzkari) zuzenpetua, 2013ko urtarrilaren 10eko erabakia eraberriduz izenpea eskuordetuta.

Horrela, bada, 2015eko apirilaren 15ean V. eranskinerako proposamen berria aurkeztu zen Campusarteko Segurtasun eta Osasun Batzordean eta gehiengo onartu zen.

Horregatik, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakiak (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzekoak) bigarren artikuluan zehaztutako eskumenen babesean, honako hau

### ERABAKIDUT:

**Lehenengoa.-** Argitara ematea erabaki honekin batera doan "Prebentzio neurri osagarriak ikastegiak ordutegiz kanpo zabaltzen direnean larrialdiren bat dagoenerako" izeneko prozedura, Prebentzioaren Kudeaketa Sistemako Prozeduren Eskuliburuko 5. prozeduraren ("Larrialdien kudeaketa" izenekoaren) V. eranskinean jasotakoa.


**Bigarrena.-** Prozedura hau indarrean sartuko da UPV/EHUko iragarki taulan argitaratzen den egunaren biharamunean.

Leioa, 2015eko ekainaren 1a

  
Miren Lorea Bilbao Artetxe  
UPV/EHUko GERENTEA



UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO  
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA  
REGISTRO DE RESOLUCIONES  
ERABAKIEN ERREGISTROA  
Resol. nº 1665/2015 Erabaki Zk.

 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">1/9</p>
---	--	--

## 5. ERANSKINA

### **PREBENTZIO NEURRI OSAGARRIAK IKASTEGIAK ORDUTEGIZ KANPO ZABALTZEN DIRENEAN LARRIALDIEN BAT DAGOENERAKO**

Beharrezkoa gertatzen denez zabaltzea unibertsitateko fakultate, eskola eta gunek gerentearen urteroko zirkularrean zehaztutako ordutegitik kanpo, ikerketa proiektuek eskatzen duten etenik gabeko jarraipenerako (7 x 24 ordu), behar-beharrezkoak diren mantentze lanak egiteko erakinetan (argiaren hornidura, urarena, komunikazio sarea, igogailuak etab.), eta instalazioen oinarrizko funtzionamendua bermatzeko, ikastegia zabalik egongo den orduetatik kanpo eraikinera sartu behar duten pertsonen segurtasuna bermatu nahi da protokolo honen bidez, prebentzio neurriak ezarrita segurtasunaren alorrean. Protokoloa, edozelan ere, bat etorri beharko da UPV/EHUko eraikinetako autobabeserako planekin, plan horietan txertatuko baita unibertsitateko kide eta bisitari guztien autobabeserako eta prebentziorako, betiere kontuan hartuta larrialdiei eta laneko segurtasunari buruzko arautegiak dioena.


Esan bezala, jarduteko irizpide hauek UPV/EHUko eraikinetako autobabeserako planetan ezarritakoaren osagarriak dira.


Ikastegia zabalik ez dagoen orduetan bertara sartu behar duten pertsona guztiei emango zaie ikastegiaren eta/edo zerbitzuaren autobabeserako planei buruzko informazioa, bai eta larrialdietarako planei buruzkoa ere. Informazio hori ikastegiko zuzendariak edo dekanok emango dio interesatuari, ikastegira sartzeko baimen agiriarekin batera.

Ikastegia zabalik ez dagoen orduetan bertara sartu eta bertan egoteko baimena salbuespenezko kasuetan baino ez da emango, behar bezala justifikatuta daudenetan, eta prozedura honen arabera.

#### 1.- IKASTEGIRA SARTZEA


- Ikastegikoak diren langileen kasuan, ikastegiko dekanok edo zuzendariari bidaliko zaio ikastegira sartu ahal izateko eskaria. Eskari hori justifikatu egin beharko da eta honako datu hauek eman (eranskin moduan agertzen den fitxa erabilia), ikastegiak txartelaren bidezko sarrera kontrolatzeko sistema izan arren: zein egun eta orduetan sartu nahi den ikastegira, eta zenbat denbora egongo den; ikastegiko zein




 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">2/9</p>
---	--	--

lokaletan egongo den (telefono zenbakia, finkoa eta mugikorra); eta zein jarduera egin nahi den.

- Dekanoak edo zuzendariak baimena eman ondoren, jakinaren gainean jarriko da eskatzailea. Pertsona baimenduak bere sinaduraren bitartez ziurtatuko du onartzen dituela instalazioak erabiltzeko baldintzak, eta ezagutu eta bete egingo dituela segurtasun neurriak. Ikastegiko dekanok edo zuzendariak baimena ematen ez duen kasuetan ere jakinaren gainean jarriko da eskatzailea.
- Ikastegia zabalik ez dagoen orduetan bertara sartzeko baimena ematen duen kasuetan, zuzendariak edo dekanok horren berri emango dio Segurtasun Zerbitzuari, Segurtasuneko zuzendariari bidalitako email edo fax bidez, interesatuak ikastegira sartu nahi duen data baino 48 ordu lehenago.
- UPV/EHUko fakultate, goi eskola tekniko, unibertsitate eskola eta guneetako zuzendari eta dekanok baimena daukaten langileen zerrenda eguneratua emango dute.
- Segurtasuneko langileek identifikatu egingo dituzte ikastegia zabalik ez dagoen orduetan bertara sartu nahi duten pertsonak; hau da, nortzuk diren eta UPV/EHUrekin daukaten harremana egiaztatzen duten agiriak eskatuko dizkiete, eta baimenik daukaten ala ez ziurtatuko dute. Edonola ere, lana egin behar duten lekuetara baino ez diete utziko sartzen.
- Arrotzen aurkako alarmak jo ez dezan ikastegia zabalik ez dagoen orduetan, aldez aurretik jakinarazi behar da pertsona baimenduak sartuko direla; eta, betiere, pertsona horiek UPV/EHUko fakultate, goi eskola tekniko, unibertsitate eskola eta guneek emandako zerrenda eguneratua agertzen direla egiaztatuko da. Zaintzako patruilak beti egiaztatzen du, in situ, pertsona baimenduak eraikinean emango duen denbora eta erabiliko dituen lokalak, Segurtasun Zerbitzukoek berriro aktiba dezaten alarma pertsona horrek eraikina uzten duenean.
- Ikastegia zabalik ez dagoen orduetan bertara sartu behar diren mantentzeko, obretako eta antzeko egoeretako langileen kasuan, Arkitektura eta Lanen Zerbitzuak jakinaren gainean jarriko ditu ikastegiko dekanok edo zuzendariak eta Segurtasun Zerbitzua, aurreko ataletan azaldutakoaz bat.



 <p>Universidad del País Vasco</p> <p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">3/9</p>
--	--	--

Baimendutako langilea kanpoko mantentze enpresa batekoa bada, zaindaria lanak egin behar diren tokian egongo da, lan horiek bukatu arte.

- Zerbitzu nagusietako langileek beren zerbitzu edo atalera sartu behar badute zabalik ez dagoen orduetan, kasuan kasuko zerbitzu edo ataleko buruak jakinaren gainean jarriko du Gerentzia, aurreko ataletan azaldutakoaz bat.
- Eraikina zabalik ez dagoen orduetan bertara sartzeko baimena ematen den kasu guztietan, baimena eman duen organoak bermatu beharko du ebakuaziorako bideak eta ateak erabilgarri egongo direla lanak egingo diren tokia ebakuatu ahal izateko, eraikineko Autobabeserako Planean adierazitakoaren arabera.
- Zaintza zerbitzuak errondak egingo ditu egunero, gutxienez bi ordurik behin, eraikina ikuskatzeko bai kanpotik bai barrutik. Lanak egiten ari diren lokalak ikuskatuko ditu, dena delako jarduera aurrera eramaten ari diren pertsonak non dauden egiaztatuko du, eta segurtasunaren ikuspuntutik beren egoera zein den begiratuko du.


## 2.- LARRIALDIETAN JARDUTEKO PROZEDURA


- **Larrialdia** bi eratara **antzeman** daiteke:

- a. **Erabiltzaileak berak.** Erabiltzaileak, aurrera eramaten ari den jarduera dela-eta, arrisku egoeraren bat sortzen badu, edota mota horretako egoeraren bat antzematen badu, berehala deitu beharko du kontrol zentrorra edo alarma sakatu. Ondoren, gertuen geratzen zaion larrialdietako irteerara joango da, Autobabeserako Planean agertzen den ebakuazio bidea erabilita, elkarguneraino.

Gorabeheren berri emateko telefonoak.

Tokia	Ordutegia	Telefonoa
UPV/EHU (orokorra)	20:00-8:00 (astelehenetik ostiralera) eta asteburuak	945013434 Luzapena: 143434
Bizkaiko Campusa	Egun osoa	946012644 Luzapena: 142644



 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">4/9</p>
---	--	--

Gipuzkoako Campusa	Egun osoa	943018430 Luzapena: 138430
Arabako campusa	Egun osoa	945013870 Luzapena: 153870

b. **Segurtasuneko langileek:** larrialdiren bat edo arrisku egoeraren bat antzemanaz gero, kasuan kasuko larrialdietako protokoloa abiaraziko dute.


- **Larrialdiaren balorazioa:** Suteen alarma pizten denean edo larrialdiko deia jasotzen denean, zaintzako patruila gorabehera gertatu den lekura joango da, egoera zein den aztertu eta prozedura hau aplikatzeko, beharrezkoa izanez gero.


- Alarma oinarririk gabekoa izan bada, terminala egiaztatu eta berrabiarazi egingo da, baita alarmen zentralita ere.
- Alarmen sisteman matxura gertatu bada, berehala deituko zaio kanpoko mantentze zerbitzuari, matxura konpon dezan. Konpondu artean zaintzako langileek arreta bereziz zainduko dute ikastegia, errondak sarri eginez.
- Larrialdi egoera dela egiaztatuz gero, Segurtasun Zerbitzuak larrialdiaren hedadurari buruzko lehenengo balorazioa egingo du, eta egoera bere kabuz kontrolatzeko aukerak aztertuko ditu.

- **Zer egin larrialdietan:** Segurtasuneko kontrol zentroak **berehala deituko die Larrialdi Zerbitzuei** (112, Ertzaintza, suhiltzaileak, osasun zerbitzuak...), egoerak hala eskatzen badu.

**Eraikina/ikastegia ebakuatu behar bada,** Segurtasun Zerbitzuak abisua emango die eraikin edo gune horretan dauden pertsoneri, prozedura hau abiarazteko; eta, era berean, hartu beharreko neurri guztiak hartuko ditu prozedura aurrera eramaten laguntzeko, honako hauek barne, beharrezkoa izanez gero:


- Martxan jarriko du alarma akustikoa eta/edo megafonia sistema, funtzionatzen hasita ez badago.
- Harrera egingo die Larrialdi Zerbitzuetakoei, gorabehera non gertatu den eta egoera zein den azalduko die, eta haiek eskatzen dioten moduan laguntzeko beharrezkoak diren bitarteko




 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">5/9</p>
---	--	--

guztiak jarriko dituzte. Larrialdi Zerbitzuetakoak iristen diren unetik aurrera, haien esku egongo da larrialdiaren gidaritzza.

- Larrialdi Zerbitzuetako langileei lagunduko die, haiek eskatzen duten guztian: larrialdia non gertatu den jakinaraztea; larritasuna zenbaterainokoa den zehaztea; eraikinean norbait dagoen esatea eta, baldin badago, non dagoen azaltzea; eraikinak zer sarbide dituen erakustea, edo ebakuazio bideak zeintzuk izan daitezkeen; ebakuazio lanetan laguntzea; eta abar.
  - Eraikinari dagokion elkargunera zuzenduko ditu pertsona ebakuatuak, eta eraikinera sartzean izena eman duten pertsonen zerrendako guztiak bertan daudela egiaztatuko du.
  - Egoeraren berri emango dio UPV/EHUK izendatutako arduradunari, hau da, ikastegiko zuzendari edo dekanuari, edo, hori egon ezean, Larrialdietako zuzendariari eta campuseko gerenteordeari.
  - Era berean, jakinaren gainen jarriko ditu Prebentzio Zerbitzuko burua eta prebentzioko ordezkariak, abisua bidalita horiek emandako helbide elektronikora edo telefonora deituta.
- Larrialdia **sutea** izanez gero, Segurtasun Zerbitzuak sutearen hedaturari buruzko lehenengo balorazioa egingo du, eta egoera bere kabuz kontrolatzeko aukerak aztertuko ditu. Sua txikia baldin bada, sutea hasi berria dela esan nahi du, eta egoerak hauek izan daitezke:
    - Segurtasun Zerbitzukoek edo UPV/EHUko Larrialdi Planetan parte hartzen duten langileek zuzenean, bizkor eta erraz kontrolatzeko eta menderatzeko moduko sutea izatea, hirugarrenei laguntza eskatu behar izan gabe.
    - Kasuan kasuko lokal, gune edo sute sektoreko babes instalazioak erabilia kontrolatzeko eta itzaltzeko moduko sutea izatea.
    - Su hasi berria kontrolatzeko eta itzaltzeko gaitasuna daukaten langileek itzaltzeko moduko sutea izatea, pertsonak edo ondasunak arrisku larrian jartzeke.
    - Baina suteak arrisku larrian jar baditzake pertsonak edo ondasunak, Segurtasuneko langileek Larrialdietako Plana abiaraziko dute eta 112 telefonora deitu.



 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">6/9</p>
---	--	--

### 3.- IKASTEKO GELAK ETA BIBLIOTEKAK IREKITZEA IKASTEGIA ZABALIK EZ DAGOEN ORDUTEGIAN

Larrialdirik gertatuz gero ikasteko gelak eta bibliotekak irekita daudenean, horien ardura daukan ikastegiko langileak kontrol zentrora deituko du, lehenik eta behin; ondoren, beharrezkoa izanez gero, lokal horiek ebakuatuko ditu, aurreko atalean azaldu den moduan.

Autobabeserako Batzordearen erantzukizuna izango da aipatutako arduradunei ematea Autobabeserako Planarekin zerikusia daukan dokumentazioa ("zu hemen zaude" planoak...), eta erakustea non dauden larrialdietako irteerak, su itzalgailuak eta abar, bai eta horiek guztiak erabilgarri egon daitezela bermatzea ere. Horretarako, Prebentzio Zerbitzuaren eta ikastegiko zuzendaritza taldearen laguntza izango dute.

### 4.- ENPRESA MINTEGIETAN DIHARDUTEN PERTSONAK ETA KANPOKO IKERTZAILEAK

Aipatutako pertsonak ikastegietan zein ikastegi ez diren guneeetan bete ditzaketenez beren zereginak, eskaria jardueraren titularrari bidaliko diote; hau da:


- ikastegien kasuan, dekanok edo zuzendariari
- ikastegi ez diren guneen kasuan, campuseko errektoreordeari

Eskaria egiteko eta baimena emateko prozedura gorago azaldu den prozedura orokorraren modukoa izango da.


### 5.- UNIBERTSITATEKO INSTALAZIOAK ETA LOKALAK ALOKATU ETA ERABILTZEA IKASTEGIA ZABALIK EZ DAGOEN ORDUTEGIAN: AZTERKETAK, BILTZARRAK, ERAKUSKETAK, AZOKAK...

Instalazioak erabiliko dituenaren esku jarriko du ikastegiko zuzendariak eraikineko Autobabeserako Plana, lokalen erreserba egiten duenean. Ekitaldia hasi aurretik eskatuko zaio froga dezala ezagutzen duela plana, eta ekitaldiarekin zerikusia daukan informazioa eskatu ahal izango zaio, bai eta plana betetzeko hartu dituen neurri zehatzak ere.

Gainera, antolatzen den ekitaldiaren titularra den aldetik, antolaketa prestatuko du halako eran non segurtasuna bermatuta egongo den, eta segurtasuneko langileekin elkarlanean arituko da, larrialdi baten ondorioz egin beharreko jarduerak ondo atera daitezzen.






 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p>7/9</p>
---	--	---

6.- Aurrera eramandako jarduerak urtero aztertuko dira eta protokolo hau erabiltzean sortu ahal izan diren gomendio eta/edo aldaketak egingo dira, horren berri emanda Campusarteko Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordeari.



 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">8/9</p>
---	--	--

**Ikastegia zabalik ez dagoen orduetan bertara sartzeko eskaria**

Eskariaren data:

Izen-abizenak:

Ikastegira sartzeko NANA eta/edo unibertsitateko txartela aurkeztu beharko da, bai eta baimena ere. Eskatzailearekin batera beste norbait sartuko bada, adierazi nor izango den:

Izen-abizenak eta NAN:

Telefono mugikorra eta finkoa:

Eraikina/Ikastegia:

Saila/Zerbitzua/Biblioteka:


Bulegoa/Laborategia/Lokala:


Noiz sartu nahi den:
Sarrera ordua:
Irteera ordua (aurreikusia)

Jarduera: Baimendutako aldiaren egingo den jardueraren azalpena

Tokia	Ordutegia	Telefonoa
UPV/EHU (orokorra)	20:00-8:00 (astelehenetik ostiralera) eta asteburuak	945013434 Luzapena: 143434
Bizkaiko campusa	Egun osoa	946012644 Luzapena: 142644
Gipuzkoako Campusa	Egun osoa	943018430 Luzapena: 138430
Arabako campusa	Egun osoa	945013870 Luzapena: 153870

<p>Eskatzailearen sinadura</p> <p>Iz.:</p>	<p>Ontzat emanda -ikastegiko dekanoa edo zuzendaria -gerentea -campuseko errektoreordea.</p> <p>Iz.:</p>	<p>Onartzen ditut instalazioak erabiltzeko baldintzak, eta ezagutu eta bete egingo ditut segurtasun neurriak</p> <p>Iz.:</p>
--	--	--



 <p>Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p><b>PROZEDURA</b></p> <p><b>IZENBURUA:</b> <b>LARRIALDIEN</b> <b>KUDEAKETA</b></p>	<p><b>KODEA</b> <b>PPRL_PR_05.5</b></p> <p><b>BERRAZTERKETA 001</b> Data: 2015/05/12</p> <p style="text-align: right;">9/9</p>
---	--	--

**Ikastegiaren jakinarazpena Segurtasun Zerbitzuari**

Data	Izena	Abizenak	Bulegoa Laborategia	Sarrera ordua	Irteera ordua (aurreikusia)	Telefono finkoa	Telefono mugikorra	Jarduera

